

Garai onak dira telebistan ZiFia ikusteko. Une honetan ni maitasun-karratu bizarro batean sartuta nago *Westworld*, *The Expanse* eta *Legion* telesailekin. Bikainak hirurak, berezia bakoitza, eta ezin aukeratu bata bestearen gainerik jartzeko (baditut nire iritziak, baina aldatuz noa denborarekin).

Edozelan ere atzo *Legion* telesailaren bigarren denboraldia ikusten amaitu nuen 19. atalarekin. Eta hain izan da anti-klimatiko (epikoki klimatiko den arren aldi berean), desatsegina (baina beharrezkoa) eta gogorra (baina helduleku moral argi eta definitiborik gabea), ezen merezi duen tarte bat hartzeak.

SPOILERREKIN HASIKO NAIZ. Abisatuta zaudete.



Has gaitezen amaieratik: Marvel unibertsoko superheroi telesail bateko protagonistak bere neska-laguna bortxatzen du 19. atalean. Horretarako bere botere psikikoak erabiltzen ditu Sydney Barretten memoria borratu eta harreman sexualak izateko.

Ekintza honek ondorio diegetikoak ditu istorioan, inguruko pertsonaiek harrapatu egiten dutelako (Syd-ek berak azalduko dio zer egin duen, atalaren amaieran David Haller protagonistari: "Drogatu egin nauzu, eta sexua izan duzu gero nirekin"), baina extradiegetikoki ere pertsonaiaren heroi/bilau izaeraren eta bortxaren (baita sexualaren ere) inguruko lurrikara bat eragiten duela iruditzen zait. Ez dut uste telesailak bortxaketaren gaia tribalizatu edo gainerik kendu nahi duenik, alderantziz, 2. denboraldi osoa bortxaketaren eta boterearen inguruko ikus-entzunezko saiakera bat izan dela iruditzen zait.

Ez dakigu zer gertatuko den Davidekin hemendik aurrera. Aukera asko zabaltzen ditu serieak. Baina badakigu ez dela ezer berdina izango. HAU GERTATU EGIN DA, Tori Amosen (bortxaketaren biktima izandakoa bera) *Cornflake girl* abestiaren bertsiorekin amaierako kredituek azpimarratzen diguten bezala:

This is not really, this, a-this


This is not really happening

*You bet your life it is
You bet your life it is*

Narratiboki oso erabaki ausarta iruditu zait, telesailaren pretentsio artistiko-intelektualoideetatik askoz harago "kuestio" politiko bat mahai gainean jartzeraino: ze harreman daukagu boterearen eta bortxaketaren artean? Bortxa fisiko elegantera ohitu egin gara, eta MTV erritmora bizi ditugu superheroien borroka emozionanteak: muturrekoak, ezpatak, arma automatikoak, izpi hilgarriak eta kamehameak. No problem. Baina *Legion*-eko bortxa beste bat da. Ez da elegantea. Ez da heroikoa. Biolentzia hutsa da, boteredunek besteengan egikaritzen duten|dugun bortxa hori.

David Haller da noski une honetan susmagarri nagusia, baina egin dezagun errepasso bat: telesail osoa bortxatzailez josita dago.

- Itzalen Erregea, Amal Farouk da agian bortxatzaileen erregea. David bera umetatik psikikoki parasitatu eta bortxatu duen izaki manipulatzaile, harro eta zitala. Ez dago bortxatu ez duen bururik inguruan: Oliver, Melanie, Sydney... eta Lenny, noski. Lenny izango da "bortxaketa" (*rape*) hitzez aipatuko duen lehen pertsonaia, Farouken menpe egondako urteez oroitzera.



- Oliver Bird (Farouken mende dagoela) beste bortxatzaile argi bat da. Kasu honetan bortxa fisiko definitiboa burutzen du Amy Hallerren aurka, DNA eraldatzaile bat erabiliz bere gorputza beste batena (Lennyrenera) bihurtuz, nire ustez 2. denboraldi osoak duen atalik boteretsu eta ilunenean.



- Sydney Barret. Daviden biktima eta Farouken biktima da, argi eta garbi, baina baita erasotzaile ere, etorkizunetik Davidi egiten diona Davidek berari gero egingo diona baino okerragoa baita agian. Eta hor dago baita 16 urte zituenean bere amaren gorputzean sartu eta orduko maitalearekin sexua izan zueneko (botere mutantea amaitu eta amak maitalea eta alaba dutxan harrapatu eta maitale ohia kartzelatu zuteneko hura, bai). Orainaldian biktima, baina erasotzaile iraganean eta etorkizunean?



Pertsonaia nagusiak bortxatzaile ditugu orduan, modu batean edo bestean. Kontua, noski, gure heroiak bortxatzaileak direla konturatzean datza. Bilauengan ondo daramagu bortxarena. Bortxatzaileak “besteak” baitira, ez gu. Baina *Legion*-ek argi jartzen du asuntua mahai gainean: ez dira besteak, gu gara.

Momentuz horixe. Asko esan liteke telesail honen inguruan, eta espero dut 19. atal honek ekarriko duela zeresana aurrerago ere. Apustu inportante bat egin dutela iruditzen zait, telesail batekin eta pertsonaia batekin zerbait egiteko apustua. Ikusiko dugu 3. denboraldian zer egiten duten honekin.

Hala ere denetarik irakurri daiteke sarean perspektiba feminista ezberdinetatik irakurrita. Zuek zer deritzozue? Apustu ausarta izan da ala hanka-sartze izugarria? Zabaltzen digu biderik, ala alderantziz?

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)